

2016ko urtea 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasaren beharpenarekin bukatzen da

2016ko laugarren hiruhilekoan gazteen langabezia-tasa % 22,1koa izan da *Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz hiru eta erdi puntuko beharpena dago*

Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) 2016ko laugarren hiruhilekoari dagozkion datuak argitaratu berri direla-eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren datuak helarazi dizkio Gazteen Euskal Behatokiari.

Zer adierazten du langabezia-tasak?

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioen bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du langabezia-tasak. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

Zein da gazteen langabezia-tasa 2016ko laugarren hiruhilekoan?

EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 22,1 da 2016ko laugarren hiruhilekoan, biztanleria osoarenarekin konparatuta ia bikoitza (% 12,5).

Badago alderik sexu edo lurralde historikoaren arabera?


Emakume gazteen langabezia-tasa (% 22,5) gizonena (% 21,8) baino handixegoa da.

Lurralde historikoei dagokienez, ikus dezakegu Araban gazteen langabezia-tasa beste lurraldeetan baino baxuagoa dela (% 15,4, hain zuzen ere), Bizkaia atzetik doa (% 22,0) eta azkenik, Gipuzkoa (% 25,3).

Zein izan da bilakaera?

2016ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz langabezia tasa 1,5 puntu jaitsi da eta 2015eko hiruhileko berdinari erreparatzen badiogu portzentajezko 3,5 puntuko jaitsiera eman da, % 25,6tik oraingo % 22,1era pasatuz.

EAEko 16-29 urte bitarteko langabeziaren tasa. 2016ko IV. Hiruhilekoa,
2015eko IV. hiruhilekoaren tasarekin konparatuz



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak eginda, Eustaten datuak (BJA) oinarri hartuta

Datu hauek [Gazteen Euskal Bahatokiaren Estatistikan](#) ere kontsulta daitezke, **Lana** ataleko **Jarduera, Okupazioa eta Langabezia** azpiatalean.